Indarkeria matxisten aurkako memoria lekuak

Argitaratzailea:

www.mugarikgabe.org

Mugarik Gabe

@mugarikgabe

ARABA
"Itziar" Elkarteen Etxea, Zalburu Plaza z/g
01003 Vitoria-Gasteiz
945 277 385 – araba@mugarikgabe.org

BIZKAIA
Vicente Garamendi auzunea 5, behea
48006 Bilbo
94 415 43 07 – bilbao@mugarikgabe.org

GIPUZKOA
Katalina Elizegi 46, behea, 4. atea
20009 Donostia
943 445 977– gipuzkoa@mugarikgabe.org

Finantzaketa:

2021ko abendua

Maketazioa: Binari Comunicación

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0) Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

Lizentzia osatua: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_

Indarkeria matxisten aurkako memoria lekuak

AURKIBIDEA

SARRERA 6
Mugarik Gabe

MEMORIAREN LEKUAK ZEREGIN POLITIKO GISA 9
Maitena Monroy Romero

INDARKERIA MATXISTEN AURKAKO MEMORIA LEKUAK 19

- **WEBGUNEAK** 21
- **IKUS-ENTZUNEKOAK** 27
- **IKERKETAK** 33
- **TOKIAK** 39
- **EKINTZA SINBOLIKOAK** 47

BALORAZIO BATZUK 54
Mugarik Gabe

Memoria Eraikiz memoria kolektiboa eraikitzearen aldeko apustua da, indarkeria matxistaren aurkako estrategia gisa biktimen eta biziraun dutenen ahotsa eta testigantzak jasoko dituena. Emakume hauei sinesgarritasuna emateko beharrak bultzatu du ekimena, haien erresistentzia-estrategiei ikusgarritasuna emateko, kontakizun hauei beste adiera bat emateko, eta emakume hauek beren bizitzen eta gizarte-eraldaketaren protagonista bihurtzeko.

Historia eraikitzen duten kontakizun hegemonikoak eta, beraz, imajinario kolektiboa, zalantzan jartzen duen memoria feminista da. Hori gabe zaila da aurrera egitea Egia, Justizia eta Erreparazio prozesuetan.

Indarkeria matxistaren aurkako estrategiaren barruan kokatzen den ekimen honen hasieran identifikatu genuen biziraundako emakumeei ahotsa eta sinesgarritasuna emateko beharra. Hala, 2013an, Emakumeen Eskubideen aldeko Auzitegi Sinboliko bat egin genuen. Beste behin ere, ahots horiek duten garrantzia ikusarazi genuen, indarkeria matxistak beren bizitzetan maila indibidualean zein kolektiboan duen eragina ulertzeko, eta ekintza sinboliko baten bidez erreparazioari ekarpen bat egin genion.

Aurrerago, Flores en el Asfalto ikerketa egin genuen. Bertan, indarkeria matxista desberdinak jasan dituzten munduko hainbat lekutako 28 emakumek beren testigantzak eman zituzten. Eraikuntza kolektibo bat izan zen, non indarkeria matxistaren kausak eta haien bizitzetan duten eragina aztertu genituen.

Kontakizun horietako zazpik Memoria Eraikiz esperientzia sentsoriala osatzen dute eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan memoria eraikitzeko gure apustua sendotzen dute, emakumeen ahotsa tresna gisa erabiliz.

Lan-ildo horretan sakonduz, jardunaldi batzuk egin genituen 2020ko urrian, memoria-lanetan zein erreparazio-ekimenetan sakontzeko, memoriak indarkeria matxistaren aurrean duen potentzialtasunari ekarpena egiteko, hainbat emakume-kolektiboren eskutik memoria eta erreparazio esperientzia zehatzak sustatzeko, eta biziraun duten emakumeen elkarteen ekarpen espezifikoa nabarmentzeko.

Dokumentu honekin beste urrats txiki bat eman nahi dugu memoria indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko tresna handia den ustean.

Argitalpena Maitena Monroy Romero aktibista feministaren artikulu batekin hasten da, memoriak emakumeen eskubideak indartzen duen garrantziaz hitz egiten duena. Ildo horretan, kontakizunaren eraikuntzaren garrantzia partekatzen du, eta, horretarako, biktima, biziraun duena eta aktibista kontzeptuen erabilera bereizten ditu. Amaieran, memoria espazio politiko gisa aztertzen du.

Argitalpenaren zatirik handiena ekarpen bat da mundu osoan zehar hainbat kolektibo egiten ari diren ahaleginari, memoria-prozesuen bidez emakumeok modu sistematikoan pairatzen dugun indarkeriari aurre egiten diotenak. Horrela, historiaren eraikuntza uniformeari aurre egiten dion memoria kolektiboa eraiki nahi duten ekimenak partekatzen ditugu, isilarazi nahi duten historia hori idazten duten ahotsak eta ekimenak berreskuratzen ditugu.

Argitalpen honek indarkeria matxistaren biktima diren eta biziraun duten emakumeen memoria soziala eratzen lagundu nahi du, munduko hainbat lekutako esperientzien bidez eta formatu anitzetan: webguneak, ikus-entzunezkoak, ikerketak, memorialak eta ekitaldi sinbolikoak. Hori da erabili dugun sailkapena, jakinda izendatzeko modua eta kategorien arteko mugak, kasu batzuetan, lauso samarrak direla. Esperientzia horiek Memoria Eraikiz webguneko memoria-gune birtual batean ere jasota daude. Gune hori kolektiboki osatzen jarraituko dugu.

Argitalpenaren amaieran, indarkeria matxistaren aurkako memoria-espazioen bilketa honetan egindako aurkikuntzen inguruko balorazio batzuk txertatu ditugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu ekimen guztiei, martxan jartzeko egin duten ahaleginagatik eta izan duten arduragatik, eta espero dugu esperientzia horiek guztiak ezagutzea lagungarri izango dela beste leku batzuetan ekimen berriak abian jartzeko eta exijitzeko.

Mugarik Gabe, 2021eko abendua

Memoriaren lekuak zeregin politiko gisa

Memoriaren lekuak zeregin politiko gisa

Maitena Monroy Romero[1]

Matxismoaren ukapenak gora egin du patriarkatua normalizatzeko eta aktibismo feministaikusezin bihurtzeko estrategia gisa. Une hau giltzarria da narratibaren lehian. Guk idatzi behar dugu gure historia, gure ahotsa eta gure historia ez daitezen berriz isilduak izan, berriz ikusezinak. Memoria kolektiboa lantzea gure oraina ulertzea da, baina baita gure iragana ere, eta historia horren protagonista izatea. Historia hori gurea da, baina, aldi berean, historia sozialaren eta memoria historikoaren parte izan behar du. Miren Llona historialariaren hitzetan: "Memoria historikoa lantzeak presentzia eta autoritatea hartzea eskatzen du, esanahiak, zentzumenak eta sinboloak erreferente publiko gisa ebazten diren eremuetan"[2]. Narratiba edo memoria feminista hau eraikitzeak zailtasun bat dauka. Izan ere, ez dagokio une edo testuinguru bakarrari; hari komuna bat jendarte patriarkal guztietan. Zapalkuntzaren jarraitutasun honek aktibismoaren jarraipen bat du, emakumeok ez dugulako soilik zapaldu papera izan, historia patriarkalean ezarritako rolaren aurka gogor egin dugu eta matxinatu gara. Horrela ez balitz, zuk gaur ezingo zenituzke nire hitzak irakurri eta, ziur aski, nik ezingo nituzke idatzi. Ez da testu hau goraipatzearren, baizik eta iragana ezagutzeko balioa azpimarratzearren, non gauzarik txikiena ere ukatua zen. Egunerokotasun sexistaren normaltasuna egunero gertatzen dena da eta ohituraz, errepikapenaren poderioz, esanahi sinbolikoa izateari uzten dio. Ez da ikusten, ez dio axola, ez du aztarna emozionalik uzten. Hala ere, feminismoaren historia aldarazi gintuzten eta mundua aldatu zuten mugarriz, datez eta borroka esanguratsuz beteta dago. Gezurra badirudi ere, historia partekatu handia eta anitza izatea zailtasun bat da memoria espazio horiek sortzeko. Izan ere, nor oroitu? Ahots batzuk diote beti ez dela guztientzako neurri bera erabiltzen, egoera jakin batzuetan, borroka feministaren ikur edo erreferente bihurtzen diren emakume zehatzekin desberdin jokatzen dela. Eta ez zaie arrazoirik falta; baina, egia da ere, eraldaketa-borroka orok erreferenteak eta sinboloak behar

1 Ekintzaile feminista, Sorginene Elkarteko autodefentsa feministaren batzordeko kidea eta Maite Albiz emakumeen dokumentazio zentroko partaidea. Autodefentsa feministako irakaslea eta Bilbo-Basurtu ESIko fisioterapeuta.

2 Ponencia de Miren Llona "Memoria histórica y feminismo" presentada en las Jornadas feministas de Granada diciembre de 2009. Disponible en https://www.feministas.org/IMG/pdf/Llona-memoria-feminismo.pdf

dituela, bertan gure buruak islatuta ikusteko eta kolektiboan borroka horren parte sentitzeko. Borroka horrek zuzenean interpelatzen gaitu, justizia sozialaren alde egiten duen aldetik. Ni Basauriko 11 emakumeek[3] markatu ninduten, erabakitzeko eskubidea ukatu zien prozesuagatik eta haietako bat haurtzaroan nire auzokidea zelako. Baita hainbat eta hainbat emakumeren hilketek ere; haien izenek bakarrik testu hau bete lezakete. Hori nire bizi-biografia txikiaren zati bat baino ez da, eta ezin dut ahanzturan pentsatu, ez dut nahi, haien historia ukatzea izango litzatekeelako, nire historia, zeinaren bidez ulertzen ditudan mundua eta nire burua. Eta hori agenda feminista egituratu duten ardatzetako bi baino ez aipatuta: erabakitzeko eskubidea eta indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko eskubidea. Kapitulu itxirik ez duten eskubideak dira, ez hemen ez munduko inongo txokotan. Emakumeen eskubideak beti dira hauskorrak eta horregatik, oroimenaren lekuak eraikitzeak lagundu dezake eskubideak gure jendartearen oinarri gisa ezartzen, behin eta berriz zalantzan jar ez daitezen. Bestalde, gure genealogian ezinbestekoa da geure burua aintzat hartzea belaunaldien arteko loturak sortzeko eta estereotipoen begiztan harrapatutako genero-identitateak irauli ahal izateko. Memoria horretan egon behar dute bidegabekeriek eta biktimek, baina baita erreibindikazioek eta lorpen feministek ere.

Gaur egun badakigu, dokumentazio-zentroen eta historialari zehatzen lanari esker, aztarna uzteko zeregina gizarte-eraldaketaren zereginaren parte dela. Horrek esan nahi du emakumeok munduan zehar jasan ditugun eskubide-urraketak ezagutarazi behar ditugula, eta errebeldia feminista ere landu behar dugula, egun errealitate dena, globala, belaunaldien artekoa eta arraza artekoa, lehen imajinatu ere ezin genuena.

Borroka politiko oro, eta borroka feminista bada, injustizia (bidegabekeria) identifikatzean kokatzen da. Kontzientzia horren ondorioz, amorruaren kartografia emozionala erreibindikazioaren (agenda) ekintza-eragile bihurtzen da.

Feminismoan, lehenik eta behin, emakumeok jasaten ditugun indarkeriei buruz teorizatu dugu. Gero, plurala erabiltzen hasi gara, indarkerietan ez ezik, indarkeria horiek jasan dituzten edo pairatzen dituzten emakumeengan ere. Indarkeriak "zeharkatzen gaituzten indarkeriak" bezala izendatu ditugu eta, horrela, indarkeria sexistaren adierazpen ugariak aitortu ditugu eta gure gorputzetan, buruetan eta mapa emozionaletan ditugun zapalkuntza-sistemekin lotutako beste batzuk ere antzeman ditugu. Indarkeria sexistaren kasuan, oinaze-esperientziei laguntzeko beharra sentitu dugu, bidegabekeriak identitatea eraikitzeko ahalmena baitu. Indarkeria horren estigmaren iraunkortasuna biktimengan jarri da beti. Biktimei buruzko estereotipo bat eraiki dugu, beren burua biktimatzat onartzea eragozten duena, horrek jasandakoa "onar-

3 https://smoda.elpais.com/feminismo/once-de-basauri-podcast-historia/

tzea" eskatzen baitu, eta estereotipo patriarkalean sartzea. Biktima kategoriaren inguruko zailtasun horrek, patriarkatuak esleitutako rol pasibo gisa, emakumeen erresistentzia eta errebeldia gaitasunak balioan jartzeko agentzia-gaitasuna galtzea dakar. Tranpa zitala da.

Nire ustez, erakundeek, profesionalek eta, batzuetan, feminismoak ere, nahasi egin dute genero-indarkeria delakoaren biktima izatea ahula izatearekin, babesgabetasunarekin, eskubideen jabe ez izatearekin edo "ahaldunduta" ez egotearekin. Genero--indarkeriaren biktimen inguruko estereotipo horiek estigma handiagoa sortu dute emakumeengan eta, beraz, askok ez dute beren burua biktima gisa identifikatzen eta ezin dute jasaten duten indarkeria identifikatu, sentitzen baitute ez diotela erantzuten biktima-eredu horri. Galdera da: arazoa biktimena da edo haiengan estigma jartzen duenarena? Gaur egun, latitude hauetan, paradoxa bat gertatzen da: ez dugu indarkeria identifikatzen, patriarkatua sistema metaegonkor bat delako, Amorósek[4] gogorarazten digun bezala, eta bertan adierazteko moduak aldatu egiten dira. Hau da, ez da funtsa aldatzen, baina bai forma. Dagoeneko ez da onartzen indarkeria sexistaren adierazpen basatirik; baina, eguneroko adierazpen matxistak txantxatzat hartzen dira, edo goraipatu ere egiten dira. Errealitatea alderantzikatu egiten da eta behin eta berriz jartzen da zalantzan biktimen kontakizuna, biktimizatzeari uzteko eskatzen zaien bitartean. Emakumeen eskubideak ukatzeko prozesuan hiru motako babesgabetasuna gertatzen da: indarkeria instituzionalaren ondoriozko egiturazko babesgabetasuna, ikasitako babesgabetasuna[5], eta babesgabetasun erradikala, Elsa Dorlinek [6]adierazten duen bezala, herritar gisa ditugun eskubideak urratzen dizkigutenean defendatzeko eskubidea ere ukatzen digutenean ematen dena. Gure memoria berreskuratzeak babesgabetasun horretatik ateratzea eskatzen du, horren aurka emakumeek egindako ekarpenak aitortzeko.

BIDEGABEKERIAZ JABETZEA; BIKTIMA IZATETIK EKINTZAILE IZATERA IGAROTZEA

Bidegabekeriaz jabetzeko eta erreibindikaziora igarotzeko bidean, nire ustez, hiru kategoria desberdin daude, eta horien definizioen zertzeladak ematen saiatuko naiz. Hiru kategoria hauek daude: biktimaren kategoria, biziraun duenaren kategoria eta ekintzaile/eragile sozialaren kategoria. Ez dira estankoak, eta haien arteko eragina

4 Amorós, Celia. La gran diferencia y sus pequeñas consecuencias... para las luchas de las mujeres. Editorial Cátedra. 2005

5 Indefensión aprendida – Wikipedia, entziklopedia askea

6 Dorlin, Elsa. Autodefensa una filosofía de la política. Editorial Txalaparta. 2019

dute. Gainera, emakume bat bere bizitzan zehar hainbat indarkeria materialen biktima izan daiteke. Horixe du jendarte patriarkal batean bizitzeak, sistemaren poro bakoitzean adierazten dela, sistema bera osatzen duelako.

Kategoria horiek bizi dugun testuinguru soziokulturalean kokatu behar ditugu, kontakizunaren eraikuntzari buruzko etengabeko eztabaida gertatzen den testuinguruan. Eztabaida horretan memoriaren lekuak sortzea ezinbestekoa da. Kategoriek, hitzek bezala, esanahia dute beren testuinguruetan, batzuetan beste testuinguru batzuetara estrapolatu daitezke, nik hala uste dut, baina ziurrenik berrikusi egin behar dira. Zer eta zergatik oroitu ez dakigunean zaila da arlo kulturalean pisu esanguratsua lortzea emakumeen bizitzei balioa emateko.

Lehenengotik hasiko naiz:

» **Biktima izateak** hiru elementu ditu: Kalte bat jasan izana, kalte hori saihesgarria izatea eta bizikidetza-arauen hauste bat bezala identifikatua izatea. Biktima izateak hiru baldintza horiek baino ez ditu betetzen, kanpokoarekin zerikusi handiagoa dutenak biktimak egiten duenarekin baino. Izan ere, une horretan arazoa inposizioaren bidez eragiten zaion kanpoko kaltea da (gogoratu behar da indarkeria sexista beti dela inposaketa bat). Duela gutxi, profesionalentzako ikastaro bat amaitu berri dut, maila instituzional gorenean. Honek, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak laguntzen esku hartzen duten eragile guztien diskurtsoa homogeneizatzea du abiapuntu. Proposatzen duen esku-hartze ardatzetako bat da emakumeak ez hartzea biktima gisa, baizik eta "indarkeriak kaltetutako" gisa. Arraroa dirudi indarkeria eragiten digun zerbait bezala hartzea, sistemaren beraren oinarri konstituzionalean dagoenean.

  Emakumeen aurkako indarkeriak bizikidetzaren araua haustea zalantzan dago oraindik ere, eta, horregatik, nabarmendu nahi dugu ez dela errudun bakarraren kontua, baizik eta erantzukizun soziala eta instituzionala dagoela, indarkeria hori beti egon delako "gauzen ordenaren" barruan. Zapalkuntza-sistema guztiek indarkeria behar dute mantentzeko, eta, horregatik, imajinario sinboliko bat dute, botere asimetrikoko harremanen eredua birsortzen duena. Eredu horren bidez, bestetasuna eta indarkeria legitimoa ezartzen dira, bestetasun hori kontrolatzeko elementu hertsatzaile eta zuzentzaile gisa.

  Gogora ekarri nahi nituzke bikote-harremanen esparruan indarkeria sexistak dituen hainbat ezaugarri, beste indarkeria genozida batzuetatik bereizten dutenak. Lehena, indarkeria kasu gehienetan tratu txarrak ematen dituenaren helburua ez da min egitea, hori "albo kaltea" da, bere benetako helburua lortzeko, hots, kontrola. Bigarrena, ez du biktimaren jokabidearekin zerikusi zuzenik, egiten duenagatik eta egiten ez duenagatik zigortzen da, hori baita biktimaren desoreka psikologikoa

lortzeko modua. Dena den, emakume batek harreman hori amaitzea erabakitzen duenean, gerta liteke indarkeriatik ez irteteaz gain, areagotu ere egitea, tratu txarrak ematen dituenak biktimaren gaineko kontrola galdu duela ulertzen baitu.

Emakumeen autoestimu baxua indarkeria jasateko arriskuarekin lotzea ere oso ohikoa da. Gaur egun badakigu autoestimu baxua gehiago dela indarkeriaren ondorio kausa baino. Gainera, oraindik ere pentsatzen dugu emakumeek indarkeriaren gaineko kontrola dutela, indarkeria inposaketa bat izango ez balitz bezala. Arazoa da jarraitzen dugula indarkeria aztertzen 40 urtetan genero-harremanetan eta emakumeengan ezer aldatu izango ez balitz bezala. Etapa kronologiko hau erabili dut 2021ean 40 urte bete direlako Latinoamerikako eta Karibeko feministek azaroaren 25a nazioarteko egun gisa aldarrikatu zutenetik, Mirabal[7] ahizpen hilketa gogoratzeko. Beren aktibismo politikoagatik erail zituzten. Kide ekintzaile eta ez ekintzaile asko hil dituzte, betiko isiltzeko ahalegin hutsalean. Nire ustez, betebehar bat dugu, haien borroka ez dadin haiekin itzali eta haien hilketak ez daitezen ahantzi.

Azken urteotan justizia errestauratiboaz hitz egiten hasi gara, biktimen erreparazioaren beharraz. Hau da, edozein ekintzaren erdigunea biktima izan behar da eta hainbat esparrutatik erreparatu behar dugu, duintasunez eta bere eskubideak errespetatuz bizi dadin. Beste batzuek, eraildakoek, ez dute biziraungo, baina haien bizitza-kontakizunek, ilusioek, desirek, bizirik iraun behar dute haien oroitzapenaren bidez, erreparazio sozialerako ariketa gisa.

Biktima gisa onartzea ezinbestekoa da erreparazioaren bideari ekiteko, baina, gainera, biktimarik gabe ez dago ez erasorik ez erasotzailerik. Erreparazioak kaltea aitortzea dakar, eta maila indibidualean zein kolektiboan gertatzen da, ez errepikatzeko konpromisoaren parte gisa; izan ere, indarkeria horrek subjektu materialak gainditzen ditu eta helburu politikoa bilatzen du, erasotzaile bakoitzaren interes partikularren gainetik. Erreparazioa, biktima edonolakoa dela ere, jendarte bakoitzaren betebehar etikoa da. Gainera, dolu sozialaren garrantzia azpimarratzea errazten du, besteren sufrimenduarekin enpatia sentitzeko gaitasuna, ezin zaiguna arrotza egin. Memoriaren espazioak edukitzeak dolu sozial hori adierazteko espazio materialak sortzea ahalbidetzen du, minari laguntzeko. Aitortzak erreparatzen, ahalduntzen eta estereotipoak apurtzen laguntzen du, gure gizarte-balioak etorkizuneko belaunaldiei transmititzea erraztuz.

7 https://mujeresenred.net/spip.php?article1820

» **Biziraun duena izatea:** Gertatu den zerbaiti edo baldintza kaltegarriei biziraun izana suposatzen du[8]. Kasu honetan, biktimak biziraun ahal izateko garatu duen erresilientzian jartzen da fokua. Erdigunea jada ez da eragindako kaltea, biziraun duenaren gaitasunak baizik. Norbera iraganeko egoeretatik bizirik atera daiteke, horri buruzko kontzientzia izan edo ez. Bizirik atera daiteke Nazien Holokaustotik, Espainiako diktaduratik eta giza izugarrikeria eragin duten genozidio guztietatik. Aldi bateko indarkeria pasarte batetik bizirik atera daiteke. Pertsona bat zuzeneko indarkerian murgilduta dagoenean, azpiratzea, borrokatzea edo laguntza eskatzea bizirauteko ariketak dira, baina, zalantzarik gabe, biktima izaten jarraitzen du. Gertatu liteke, nahi gabe, emakumeen gaitasunetan zentratu nahiean indarkeria horren jatorria non dagoen adieraztea ahaztea. Gainera, ez da fenomeno bat, gizonen eta emakumeen arteko harreman-eredua izan da eta, neurri batean, bada. Berrespen-sistema instituzional oso batekin, ikus Angela Gonzálezen, Juana Rivasen eta Irune Costumeroren kasua, Valentzian adingabe bat bortxatu zutenekoa[9] ... eta berriz ere zerrendak ez du amaierarik. Erresistentziarako eta bizirauteko gaitasunetan zentratzeak begirada emakumeen gaitasunetan jartzea ekar dezake. Emakume hauei ekintza ausartak eskatzen dizkiegu, indarkeria bere dimentsio osoan digeritzeko aukerarik gabe, eta askotan indarkeria ez da amaitzen eraso materialaren ondoren, erakunde-mailan jarraitzen baitu.

» **Ekintzaile/eragile soziala izatea:** Urrats bat eskatzen du, ez dela nahitaez indarkeriaren biktima materiala izatetik igaro behar, baina bai norberarengan edo beste emakumeengan bidegabekeria identifikatzetik. Feministaren askorentzat, eta horien artean nago ni ere, aktibista izatea ez da bizimodu bat bakarrik, erreparazio- eta sororitate-ariketa etengabea ere bada, emakume izatea bizi-arriskuko faktorea izan ez dadin.

Erreparatzeko, justizia errestauratiboaren ikuspuntutik, kaltea aitortu behar da. Indarkeriek subjektu materialak gainditzen dituztenean, indarkeria sexistaren kasuan bezala, ezin dugu zigor-eremuan bakarrik jardun, errudun bakarra bilatzen. Zeregin feministaren parte da narratiba kulturala eztabaidatzen laguntzea. Batzuetan, estigma hautsi nahian, hauspotu egin dugu, edo, behintzat, ez dugu behar adina tarte utzi bizitako indarkerien gaineko kalteak aztertu eta erreparatzeko, emakumeak biziraundako bezala izendatu ditugunean, indarkeria patriarkala iraungiko balitz bezala.

---

8 Espainiako Errege Akademian biziraun aditzaren erreferentzia ageri da: 1. Heriotzaren ostean edo gertaera jakin baten ostean bizitzea. 2. Baliabide gutxirekin edo baldintza txarretan bizitzea.

9 https://theworldnews.net/es-news/el-supremo-absuelve-a-dos-condenados-por-abusos-por-su-simetria-de-edad-y-madurez-con-la-victima-de-13-anos

MEMORIA LEKU POLITIKO GISA

Mugimendu politiko eraldatzaile bakar batek ere ezin du bere proposamena artikulatu bidegabekeria kontuan hartu gabe, bere aldarrikapen historia ezagutu gabe. Gainera, hasieran esan bezala, gure borroka gure memoria kolektiboaren parte izateaz gain, letra larriz idatzitako historiaren parte izatea nahi dugu, emakumeek eta feminismoak justiziari, demokraziari eta jendartearen askatasunari egindako ekarpen sozial handia aitortuz.

Bilbok biktimen omenez plaza bat izateko kanpaina hasi genuenean (baita indarkeria horren aurka erabateko prekaritatetik borrokatu diren emakume eta erakunde feministak gogoratzeko ere), gainditu behar izan genuen erresistentzietako bat feminismoaren barnekoa izan zen. Kide askok ez zuten horren beharra ikusten, areago, zalantzan jartzen gintuzten, eta eskaera sinatzeari uko egin zioten, sistemak emakumeen inguruan esaten zuena sustatzen genuela leporatuz, hots, sumisioa. Orduan paradoxa gertatzen zen: nahi gabe, biktimak ez aitortzearekin haiek jasandako mina bidegabe bezala identifikatzea eragozten genuen, eta horrela ezin zuten pertsonaletik politikora jauzi egin. Beharbada, ez genuen jakin gure mezua ondo helarazten. Gainera, 2010. urtean emakumeen memoriaren gaia eta feminismoarena, ez ziren sartzen imajinario kolektiboan, bai, ordea, beste memoria batzuk. Iruditeriaren parte izatean, edozein mugimendu politiko edo zapaldutako talde sozialek bere kontakizun historikoa eraiki dezake, bere borrokaren parte gisa. Egiatan, erakunde mailan[10] erabaki zen Azaroaren 25eko Plazari azpititulu bat jartzea, "emakumeena" esaten zuena, justu guk adierazi nahi genuenaren kontrara. Guretzat funtsezkoa zen herritar guztiek plaza hori eurena sentitzea. Gure jendarte-balioen isla izatea, etorkizuneko belaunaldiek indarkeria sexistaren izugarrikeria gogoratzea eta indarkeria hori desagerrarazteko erantzukizuna bere egitea. Ez genuen nahi betiko mezua helaraztea, "indarkeria emakumeen kontua" dela dioena[11]. Beste argudioetako bat zen azaroaren 25a ez zela data ezaguna. 8 urte igaro dira Azaroaren 25eko Plaza errealitate bihurtu zenetik. Egun agerikoa da argudio horrek ez duela zentzurik. Hala eta guztiz ere, konbentzituta nago Azaroaren 25eko Plazak mugarri bat markatu zuela. Batzuetan denbora behar izaten da hausnartzeko eta argudiatzeko, are gehiago orain gutxi arte memoria lan-ardatzetako bat izan ez duen tradizio feminista batekin. Borroka feminista, agian generoaren sozializazioagatik edo geure historiari ihes egiteko nahiagatik edo, zalantzarik gabe, ez delako indibidualtasunak goraipatzen dituen borroka bat, mugimendu politiko oso

10 Promesas incumplidas: https://www.pikaramagazine.com/2011/11/promesas-incumplidas-bizkaiko-emakume-asanbladak-bilboko-udalari-indarkeria-sexistaren-biktimen-oroimenaren-leku-bat-ezartu-ez-izana-leporatzen-dio/

11 https://www.pikaramagazine.com/2011/03/por-ellas-por-nosotras-por-todas-por-todos-no-olvidamos/

kolektiboa da. Agian, horregatik guztiagatik kostatu zaigu historia hori balioestea, baina hori gabe ezingo litzateke egungo jendarterik ulertu.

Autodefentsa feminista egonkorreko taldean azken azaroaren 25ean aldarrikatu genuen "erakundeek erreparatzen ez dutena guk erreparatzen dugula", eta zalantzarik ez dut feminismoa eta ekintzaile feminista izatea erreparazio-ariketa bat dela, indibiduala eta kolektiboa, milioika emakumerentzat. Hori bai, soilik uler daiteke memoriaren alde, errelatoaren alde eta borroka kulturalaren alde ez egitea mundua eraldatzeko tresnak direnak baldin eta onartzen badugu emakumeen aurkako indarkeria ez dela arazo sozial bat edo emakumeok zeharkatzen gaituzten bidegabekeriak eta indarkeriak guri bakarrik axola zaizkigula onartzen badugu. Indarkeria sexistak axola badu, jar dezagun gure alea garrantzitsua izan dadin. Bihurtu ditzagun dagoeneko existitzen diren memoriaren espazioak Mexikokoa, Bilbokoa, Txilekoa edo Azkoiengoa kasu oroimenerako, elkartasunerako eta gogoratzeko dugun erantzukizunaren islarako espazio, ez errepikatzearen konpromisoa betetzeko.

Indarkeria matxisten aurkako memoria lekuak

WEBGUNEAK

Espainiar estatua: 2014an espainiar estatuko feminizidioen kazetaritzako ikerketa

La Marea, 2019

#PorTodas 2014an zehar indarkeria matxistak erail dituen datu ofizialen araberako 55 kasuen kazetaritza ikerketa da. Emakume hauen historia berriz eraikitzea bilatzen duen lana, erailketa hauek bultzatu edota ahalbidetu zituzten faktoreak identifikatu eta hauek errepika ez daitezen hartutako neurriak eta aldaketak aztertzeko helburuarekin.

Informazio gehiago: https://portodas.lamarea.com/

Euskal Herria: Erailketa matxisten mapa

Berria, 2018



Mapa honek 2003 tik Euskal Herrian izan diren Feminizidioak jasotzen ditu. Bilaketa adin tarteka, urteka zein lurraldeka egiteko aukera ematen du, eta era berean indarkeria matxistan sakontzeko hainbat gako partekatzen ditu. Tresna honek Euskal Herriko erailketa matxisten ikuspegi historikoa ematen digu, auziaren norainokoa neurtzen lagundu, eta hildakoiei zor zaien memoria historiko ariketa ere bada.

Orain arte, urteka eman izan ditu BERRIAk indarkeria matxistari buruzko datuak. Baina, urte bat hastearekin batera, hutsean jarri izan da kontagailua, eta, nolabait, galdu egin da ikuspegi historikoa eta auziaren norainokoa. 2003tik izandako feminizidioak datu bakarrean bilduz, indarkeria matxistaren adierazlerik gordinena biluzi nahi du webgune honek, bortizkeriaren tamaina agerian utzi.

Tresna bat ere izan nahi du; datu base bat eskaini nahi die indarkeria matxistaren aurkako borrokan ari diren eragile askotarikoei: mugimendu feministako kideei, kazetariei, hezitzaileei, ikertzaileei, erakundeei...

Era berean, **memoria historikoko ariketa bat** proposatu nahi du webgune honek. Hamarkada askotan ikusezina izan da bortizkeria matxista, eta ahanzturan erori dira horren ondorioz hildako emakumeak; azken urteetan, ordea, ugaritu egin dira biktimen memoria berreskuratzea galdegin duten ahotsak, baita horretan hasi diren proiektuak ere. BERRIAk hedabide gisa duen konpromisoari heldu nahi dio, hildako andre horiek ahanzturatik ateratzeko ale xume bat jarriz eta haien memoriari buruzko eztabaida sustatuz.

Informazio gehiago: https://www.berria.eus/bereziak/indarkeria-matxista/

Espainiako estatua: Sorginkeriagatik jazarritako emakumeen memoriaren aldeko kanpaina

Hainbat lurraldetako gizarte-taldeak, 2018

Kanpaina honen abiapuntua da sorgin ehiza modernitatearen prozesu fundatzailea izan zela, eta emakumeak diziplinatu nahi izan zituela, sortzen ari zen gizarte kapitalistan leku berria onar zezaten. Horrek atzean uzten zuen landa-komunitateen ugalketa-autonomia, eta, indarkeriaren zeinuaren azpian, nekazarien proletarizazioaren pean, merkataritza-harremanen mende eta Estatuen eta Elizaren sorreraren pean azpiratzen zuen, biztanleria, sexualitatea eta ugalketa kontrolatzea lehen helburu zutenak. Hau XVI. eta XVII. mendeetako Europan gertatu zen, baita Amerikaren konkistan ere. Hala ere, gaur egun ikusten dugu hilketa horiek gertatu ziren tokietan modu mitologikoan eta jai-giroan gogoratzen dituztela, eta kasu askotan jazarleen ikonografia errepikatzen dutela. Honek pairatutako indarkeriaren hutsaltzea eta arrazoi historikoen ezkutatzea dakar.

Horregatik, kanpaina hau osatzen duten taldeek honako hauek proposatzen dituzte:

» Sorgin ehiza historikoa ikertzea eta kapitalismoaren, estatu modernoaren eta kolonialismoaren sorrerarekin duen lotura aztertzea.

» Sorgin ehiza garaikidea ikertzea eta kapitalismoaren, estatuaren eta kolonialismoaren aurrerapenari erresistenteak diren bizimoduak isilarazteko eta kriminalizatzeko egindako sorginkeria salaketak aztertzea. Baita borroka horiek babestea eta ikusaraztea ere.

» Gertakari horien memoriaren irudikapena aztertzea, gertatu ziren lekuetan memorialak garatzeko aliantzak eraikitzea eta jarraipena egitea memoria hori folklorerik edo estereotiporik gabeko gertaera historikoekin bat etor dadin.

» Kapitalismoaren hastapeneko emakumeen aurkako indarkeria eta gaur egungoa lotzea.

» Ikerketa eta gogoeta horiek zabaltzea, gizarte-justizia erdigunean izango duen beste mundu bat eraikitzen laguntzeko.

Informazio gehiago: http://memoriadelasbrujas.net/

Estatu espainiarra: "Mujeres, Memoria y Justicia" ikerketa eta memoriareko erakundea

Mujeres, Memoria y Justicia, 2017

«Mujeres, Memoria y Justicia» ikerketa eta memoriarako zentroa, Francoren diktaduran zehar espainian gauzatu ziren genero arrazoiengatiko krimenak ikertu eta zabaltzeko sortu zen. Transizio justiziaren osagarri izan daitekeen oroimenaren aldeko justizian interesa zuten eta frankismoko errepresioaren feminizazioa ikustarazteko erabaki irmoa zuten emakumezko ikerlari talde baten ekimenez.

2007ko Memoria Historikoaren Legeak hartutako neurrien izaera androzentriko garbia agerian utzi dute, dikaturan zehar diskriminazioa, jazarpena edota indarkeria sexuala bizi izan zuten emakumeak kanpoan uzten dituelarik. Zentro hau, beraz, Francoren dikaturan zehar aurrera eramandako genero krimenen zabalkundea eta ikerketa sustatzeko, zein honek egungo genero indarkerian daukan eragina aztertzeko sortu zen.

Informazio gehiago: https://mujeresmemoriayjusticia.es/

PERU: Proyecto Quipu

Chaka estudioa, 2015

Web interaktibo honen helburua Perun 90eko hamarkadan emakumeak bortxaz antzutu zituzteneko gertaerak argitzea da, memoria kolektiboko artxibo bat sortuz. Asmoa da istorio horiek ez daitezen inoiz ahaztu eta abusu horiek berriro gerta ez daitezen laguntzea. Proiektua Amnesty Internationalekin lankidetzan garatu dugu, *Bere Borondatearen Kontra* izeneko kanpaina babestuz, baita tokiko emakumeen erakundeen laguntzarekin ere, artxibo hori euren aitortza eta erreparazio borrokan erabiliko den itxaropenez.

90eko hamarkadan, Peruko presidente izan zen 10 urteetan, Alberto Fujimorik Familia-Plangintzako Programa berri bat abiarazi zuen, 4 urtetan 272,028 emakume eta 22,004 gizon antzutu zituena. Gehienak landa-eremuetako komunitate indigenetakoak ziren, eta milaka lagunek adierazi dute baimen informaturik gabe antzutu zituztela. Fujimori Lehendakariak 2000. urtean dimisioa eman ondoren, esterilizazioen bidegabekeriak azalarazten hasi ziren. Ia bi hamarkada igaro eta gero, pertsona horiek justizia bilatzen jarraitzen dute.

Quipusak elkarri lotutako sokak dira, Inkek eta antzinako Andeetako zibilizazioek mezu konplexuak transmititzeko erabiltzen zituztenak. Dokumental interaktibo hau sistema honen interpretazio garaikide bat da. Webgune honetarako bereziki garatutako eta konektatutako telefono-linea baten bidez, esterilizatutako 150 pertsona ingururen testigantzak bildu dira. Bi noranzkoko komunikazio-kanal bat da, non emakumeek elkarri entzun eta erantzun diezaioketen, laguntza-azpiegitura bat sortuz, komunitateetako pertsona kaltetuak konekta ditzakeena.

Informazio gehiago: https://interactive.quipu-project.com/#/en/quipu/intro

Granada, Madril, Londres: Herstóricas.

Herstóricas, 2016

Izaera hezitzailea eta kulturala duen proiektua honek, emakumeek historian egindako ekarpena ezagutzera eman, balioan jarri eta hauen hutsunearen inguruan ikuspegi feministaren batetik hausnartzen du. Tailer, ibilaldi eta bisita gidatuen bitartez genero estereotipoak eta sistema patriarkalak emakumeei ezarritako rolak zalantzan jartzen dituzten emakumezko erreferenteak aurkezten dira modu dinamiko eta interaktiboan, parte-hartzea, eztabaida eta pentsamendu kritikoa sustatuz.

Informazio gehiago: https://herstoricas.com/

Espainiako Estatua: Emakumeen historia ikertzeko Espainiako elkartea

Emakumeen Historia Ikertzeko Zentroen Nazioarteko Federazioa,1991

Emakumeen Historia Ikertzeko Zentroen Nazioarteko Federazioaren (FICIHM) parte den erakundea. Bere helburua Espainiako unibertsitateetan dauden Emakumeen Historiako ikerketa-zentroen eta FICIHM-ren arteko harremanak koordinatzea da, Espainiako mundu akademikoan Emakumeen eta Generoaren Historiaren arloko ikasketak sustatzeko eta nazioartean zabaltzeko.

Bere jardueren artean honako hauek nabarmentzen dira: solasaldiak eta mintegiak antolatzea, emakumeen historiari buruzko ikerketarako eta doktorego-tesietarako argitalpenak eta sariak bultzatzea eta emakumeen eta generoaren historia hezkuntza-maila guztietan irakasten eta zabaltzen laguntzea.

Informazio gehiago: https://aeihm.org/



IKUS-ENTZUNEKOAK

Ahots anitzak: Guatemalako emakumeen memoriaren eta justiziaren aldeko estrategiak

Guatemalako Casa Colibrí/Rochoch Tz ʻünun eta Hegoa Institutua (EHU), 2020

Gloria Guzmán eta Irantzu Mendiak koordinatutako dokumentalak antolatutako emakumeen ahotsak biltzen ditu, hainbat estrategia planteatzen dituztenak gatazka armatuaren esparruan giza eskubideen urraketa larrien biktima diren eta bizirik atera diren emakumeei justiziarako sarbidea eta erreparazioa errazteko.

Dokumentalaz gain, gida didaktiko bat egin dute, dokumentala eztabaida eta/edo formakuntza espazioetan erabiltzea errazteko. Gainera, gidak dokumentalaren edukiekin lotutako erreferentzia osagarri batzuk jasotzen ditu, baita dokumentalaren datu osoak ere, parte hartu duten pertsonen eta erakundeen izenak barne.

Informazio gehiago: https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/es/publications/441

De esto no se habla podcastaren 3. atala: Una placa en mi pueblo (Plaka bat nire herrian)

Isabel Cadenas Cañón, 2020

De esto no se habla podcastak isiltasunaren aurka eta memoria berreskuratzearen alde egiten du. Zehazki, 3. atala abortatzeko eskubidearen inguruko memoriaren leku bat da, Basauriko 11 emakumeen kasua gogorarazten duena, prozesuaren 40. urteurrenean. Isabel Cadenas Cañon podcasteko zuzendari eta Basauriko bizilagunak dioen bezala, Basauriko 11en historia denborarekin lausotuz joan bada ere, bere garaian egunkarietako orrialde asko bete zituen, titular asko. Hemerotekek gogoan dute zalaparta hura, eta nola gertatu zen irudikatzen laguntzen digute.

Kasu hau abortuaren despenalizazioaren aldeko mobilizazio gogor baten pizgarri izan zen. Prozesua luzea izan zen, baina 1985ean lortu zen: abortatzeak delitu izateari utzi zion Espainiako legean. Podcast honek lortutako eskubideetan memoriak duen garrantzia gogora-

razten digu. Gaur egun, abortatzeko eskubidea onartuta dago, baina oraindik ere eskubide ahula da. Memoriaren leku hauek eskubideak eta haien legitimitatea indartzen dituzte.

Informazio gehiago: https://deesonosehabla.com/episodios/

Las mujeres de Gasteiz en la matanza del 3 de Marzo de 1976 (Gasteizko emakumeak 1976ko martxoaren 3ko sarraskian)

Intxorta 1937 Kultur Elkartea, Martxoak 3 Elkartea y Sudergintza, 2018

Zuriñe Rodríguez, Itziar Mujika eta Nora Mirallesek idatzitako *Las mujeres de Gasteiz en la matanza del 3 de Marzo de 1976 (Gasteizko emakumeak 1976ko martxoaren 3ko sarraskian)* liburua Hala Bedi irrati librean entzun daiteke. Sarraskiaren aurreko egunak, sarraskiaren eguna bera eta ondorengo egunak bizi zituzten ia berrogeita hamar emakumeri egindako elkarrizketak jasotzen dituzte, eta lana argitaratu gabeko 25 argazkirekin lagunduta dago.

Irakurri ez ezik, entzun ere egin daiteke, "irakurri ezin dutenek liburuaren eduki osoa jaso dezaten". Zorigaiztoko egun hura bizi zuten pertsona asko nagusiak direnez, beren kideen kontakizuna erraztu nahi izan diete. Horretarako, lankide, liburuko protagonista, kazetari eta hiriko talde feministekin jarri ziren harremanetan eta ahots guztiak Hala Bedi Irratiaren estudioetan grabatu zituzten. Gasteizko irrati libreak bere aletxoa jarri nahi izan du emakumeen historiaren eta liburuaren beraren bozgorailu izaten.

Informazio gehiago: https://halabedi.eus/audios-3demarzo/

Euskal Herria: "Volar"

Emakunde, 2017

Bertha Gaztelumendik zuzendutako filma. Iraganean genero-indarkeria bizi izan duten bederatzi emakumek asteburu bat elkarrekin emango dute landa-eremuan, eguneroko bizitzatik urrun. Askotariko adinak eta lanbideak dituzten emakumeak badira ere, gai dira hitzen beharrik gabe elkar ulertzeko.



Indarkeria horren infernuari aurre egiteko izan duten adoreak elkartzen ditu, baita hortik bizirik irten izanak eta pairatutako sufrimenduari zentzua eman nahiak ere. Gainera, beste emakume batzuen eta gizartearen esku jartzen dute beren bizitzako ibilbidea, biktimismorik gabe.

Informazio gehiago: https://bit.ly/3yUueKI/

Valentzia: "Entre el dia i la nit no hi ha paret"

Les Espigolaores, 2016

Les Espigolaores Puet, Campanar eta partida de Dalteko ortu valentziarretan ahozko memoriaren bidez, 90. hamarkadan hirigintza-espekulazioak suntsitutakoaren artean miatzen dabil. Carmen, Pilar, Pepita, Maruja, Lola eta Milagros emakumeen bitartez egiten ari da. Dokumentalak ortuzain emakumeen protagonismoa ikusaraziz.

Informazio gehiago: https://bit.ly/3pjTbMK

Andalucía: «Recuperando la memoria» Las Mujeres en la II República

Asociación para la Memoria Histórica y la Justicia de Andalucía, 2014

Frankismoko biktimentzako Egia, Justizia eta Ordaintza eskatzea helburua duen Andaluziako Memoria Historiko eta Justiziarako Elkarteko (AMHYJA siglak gazteleraz) irratsaioa. Frankismoko biktimei euren sentimenduak eta aldarrikapenak adierazteko plataforma bat errazten zaie.

Nahi dena da frankismoko biktimentzako memoria historikoko mugimenduko helburu nagusiak: egia, justizia eta ordaintza, ez daitezela bakarrik sentituak eta aldarrikatuak biktimen

partetik, espainiar jendarte osotik baizik, iraganeko egiaren zauriak ixteko eta etorkizunari berme hobearekin aurre egiteko.

Informazio gehiago: https://www.youtube.com/watch?v=pk70YedugDs&feature=emb_logo

Euskal Herria: "Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa"

Intxorta 1937 Kultur Elkartea, 2012.

Bigarren Errepublikan etorkizun justoago baten ametsa bizi izan zuten, eta gerora gerraren eta diktaduaren gau luzea bizi izan zuten emakumeen errelatuak jasotzen dituen dokumentala. Beraien bizipenek borrokaz hitz egiten dute, eta gaur egun garena, ein handi batean beraien balio eta indarrari zor diogula erakusten digu.

Hitoriak gutxietsi izan dituen arren, oso garai gogorretako protagonistak izan dira. Ekiemenak aurrera eraman izan dituzten, sortzaileak izan dira, sufritu izan dute, eta aldi berean aurrera egin dute. Asko eta asko anonimoak izan diren arren, dokumental hauek berien omenez egiten da, jasan izan duten ahanzturari eta isilarazitako istorioei.

Informazio gehiago: http://www.intxorta.org/tienda/producto/mondragon-1936/

Euskal Herria: Tximeletan burdinaren erdian

Berdintasun Politiken Nazioarteko Berrikuntza Zentroa (CIINPI), 2012



Hainbat indarkeria motaren biktima izan diren emakumeen testigantzak biltzen dituen dokumentala da.

Euskal Herria ardatz, beste latitude batzuetako adituen iritziak ere biltzen dira, biktimen esperientziak testuinguru zabalago batean kokatzen dituztenak. Dokumentalean parte hartzen duten ema-

kumeek indarkeria gainditzeko nahia partekatzen dute, etorkizunari bake eta justiziarekin ekiteko.

Informazio gehiago: http://www.cineenvioleta.org/mariposas-en-el-hierro/

Ciudad Juarez (Mexiko): "Desde que no estás"

Rossella M. Bergamaschi, 2010

Azken 17 urteetan Ciudad Juarezen (Mexiko) ehunka emakume, gazte eta neskato desagertu eta erail dituzte. Hamabi amek beren borroka bakartiaren istorioa kontatzen dute, arduradunak babesten dituzten eta zigorgabetasuna betikotzen duten agintari ustelen aurkakoa.

Emakume benetan ausartak eta solidarioak dira, minean indarra aurkitu dutenak, eta egunero borrokatzen direnak beren alabentzako justizia eta duintasunaren alde. "Guretzat, gure alabak ez dira hil. Gogoratzen ez ditugunean hilko dira" Paula Flores.

Informazio gehiago: http://lavapiesdecine.net/pelicula/897/desde-que-no-ests

Kolonbia: "La Revolución Pacífica" Iraultza Baketsua

Cine Mujer – Kolonbiako Unibertsitate Nazionaleko Genero Ikasketen Eskola, 2002

Dokumentala, 1920tik gaur egunera emakumeen historiaren haste-bidaia da, emakumeen eskubide zibil eta politikoak lortzeko borrokaren gertaera eta ekintza politiko nabarmenenak berreskuratuz.

Ikus-entzunezko memoriatik ezezagunak diren alderdi batzuk eta emakumeen historia Kolonbian berreskuratzen ditu, politikan parte-hartze femeninoa ezarriz, sektore hau partidu, mugimendu sozial, gremio ekonomiko eta Estatuaren zuzendaritzan maila lokal eta nazionalean protagonista bezala ahaldunduz.

Informazio gehiago: https://www.facebook.com/BbibliotecaDigitalOfeliaUribe/

IKERKETAK

Nazioartekoa: Bizirauteko eta eusteko sareak

Mugarik Gabe, 2021

Indarkeria matxistetatik biziraun duten emakumeen elkarteek berauen parte diren emakumeak ahalduntzeko zein jabetze kolektiborako egiten duten lana ezagutzeko eta aitortzeko, taldekako elkarrizketen bidez, kideen subjektibotasunetik abiatuta, talde hauen kontakizunak dokumentatu dira.

Indarkeria matxistak biziraun duten emakumeek, beste behin, kolektiboek beren bizitzetan izan duten garrantzia azpimarratu dute. Emakumeei laguntzen dieten kolektiboak ezinbesteko eragileak dira beren prozesuan. Horregatik, biktima diren eta biziraun duten emakumeen kolektiboen historiak dokumentatu dira, kolektiboek ahalduntze indibidual eta kolektiboan duten zeregina azpimarratzeko eta zabaltzeko.

Kolektibo hauen dokumentazioa aurki dezakezue hemen:

Bizitu ı **Goizargi** ı **Renacer**

Mexiko Hiria :: "Lesvy. Fanzine de la memoria"

Lesvy Berlin Rivera Osorioren Oroimenerako Babes Taldea, 2021

Mexiko Hiriko Unibertsitate Hirian Lesvy Berlin Rivera Osorioren feminizidioa gertatu eta lau urtera argitaratutako fanzinea. Babes Taldeak argazkiak, brodatuak, collageak, testuak, poemak eta bestelako maitasun keinuak bildu zituen, azken lau urteotan haren ama Araceli Osorio eta aita Lesvy Riverari helarazi dizkietenak.

Fanzinearen helburua da "mina igaroz, amorrua antolatuz, alaitasuna defendatuz" gurasoei laguntzea, eta Lesvy oroitzea. Kasu honetan, agintariek ez zuten behar bezalako ardurarekin jokatu, eta hainbat giza eskubide urratu zituzten. Urraketa horiek, ondoren, aintzatetsi eta erantzun egin ziren hainbat gomendio eta erreparazio-egintzarekin.

Informazio gehiago: https://www.facebook.com/justiciaparalesvy

Espainiako Estatua : “Comenzar desde Cero: Voces de mujeres recuperando sus vidas”

Tania Merelas, 2017

Indarkeria matxistek lotura gisa funtzionatzen dute bizi garen jendarte patriarkalen artean. Emakumeengan beldurra iraunarazten duten ekintzek lortu egiten dute agindu androzentriko eta patriarkal hori erreproduzitzea. Lan honen helburua —baita aise lortu ere— emakumeak pertsona indartsutzat hartzea da, gaitasun indibidual eta kolektiboak dituzten pertsonatzat; antzeko egoera bat gainditzea eta gainditu ahal izatea emakumeen indargune handitzat hartu behar da, eta ideia hori presente dago kontakizun osoan.

Liburu honetan egileak narrazio lan bat egin nahi du, saiakeraren eta ikerketa txostenaren artean kokatzen dena. Egitura teorikoaren bidez gai konplexu bati heltzen dio, eta galdera deserosoak egiten ditu, irakurlea konfort-zonatik ateratzeko.

Informazio gehiago: https://bit.ly/32vnbvT

KOLONBIA: *Aniquilar la diferencia* ikerketa (Desberdintasuna deuseztatu). Lesbianak, gayak, bisexualak eta transgeneristak Kolonbiako gatazka armatuaren esparruan.

Memoria Historikoaren Zentro Nazionala, 2015



CNMH Memoria Historikoaren Zentro Nazionalak bi urtez egin zuen ikerketa hau. Helburua LGTB pertsonek Kolonbiako gatazka armatuaren esparruan jasandako indarkerien, eraginen eta erresistentzien ulermenean aurrera egitea zen. Biktimen Erregistro Bakarraren arabera, Kolonbian 1.462 biktima LGTB daude. Hala ere, biktimek azpimarratu dute kopuru horrek azpierregistro tasa handia duela. Ikerketa prozesua herrialdeko lau departamendutan oinarritu zen: Antioquía, Bolívar, Cundinamarca eta Nariño. Azterlanean LGBT gizarte-sektore ezberdinetako gatazka armatuaren 63 biktimak hartu zuten parte.

Era berean, memoriari buruzko ikastaro kolektiboak egin ziren eta 100 pertsona inguruk parte hartu zuten.

Deuseztatzea desagerraraztea da, ezerezera murriztea, eta horixe gertatu da, hain zuzen ere, lesbiana, gay, bisexual eta transgeneristekin gatazka armatua egon den eremuetan. Ezabapen materiala eta sinbolikoa pairatu duten biktimak dira. Materiala, erailketa selektiboak eta desplazamendu behartuak pairatu dituztelako; eta sinbolikoa kasu askotan bizirauteko modu bakarra beren identitate sexuala erabat ezabatzea izan delako.

Para más informacíon: https://bit.ly/32dXGzO

El Salvador: Mujeres con memoria. Activistas del movimiento de derechos humanos en El Salvador (Memoria duten emakumeak. Giza eskubideen aldeko mugimenduko ekintzaileak El Salvadorren)

Gloria Guzman Orellana eta Irantzu Mendia Azkue, 2013



Hegoa Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuak argitaratutako argitalpen hau El Salvadorreko giza eskubideen mugimenduko emakume aktibistei buruzko ikerketa baten emaitza da: bere motibazioak, helburuak, estrategiak, lorpenak eta giza eskubideak defendatzean eta egiaren, justiziaren eta erreparazioaren agenda sustatzean aurkitutako oztopoak.

Horregatik guztiagatik, lan honen lehen helburua El Salvadorreko giza eskubideen mugimenduan emakume aktibistek duten papera aztertzen eta ikusarazten laguntzea izan da. Horrekin batera, bigarren helburua biktimek eta haien senideek egin duten memoria lana indartzea izan da. Mugimenduaren zati handi bat osatzen dute eta haientzat memoria ez ahazteko eta isiltasuna hausteko mandatua bihurtu da. Azkenik, hirugarren helburua izan da perspektiba historikoarekin aztertzea giza eskubideen aldeko aktibisten zenbait praktika. Hauek, indarkeriaren biktima izatearen eta aldi berean El Salvadorreko historia hurbileko gertaera garrantzitsuenen protagonista eta eragile politiko izatearen arteko dialektika konplexua azal dezakete.

Informazio gehiago: https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/publications/292

Argentina: «Y nadie quería saber»

Memoria Abierta, 2012

Atxiloketa-zentro klandestinoetako sexu--indarkeriari buruzko kontakizunek iritzi publikora salto egin zutenean, eta tortura bezain sistematikoa den delitu autonomo gisa aitortzeko irekiera judiziala eman zenean, 35 urtez isildutako gai bat jarri zen agenda publikoan. Lan honetan Memoria Abierta ahozko artxiboa osatzen duten 60 emakume baino gehiagoren lekukotasunak aztertzen dira. Indarkeria horren inguruan, bere adierazpenen, eragin subjektiboen eta oraingo astinaldien inguruan hausnartzen eta salatzen duten kontakizunak dira.

Hainbat topiko errepikatzen dira: gaiaren inguruko isiltasuna; entzuteko zailtasunak; emakume hauek indarkeria horiei eta bere ondorioei buruz hitz egin nahi edo ahal izan duten tokiak, uneak eta solaskideak... Azpimarragarria da bizirik atera diren emakumeek biktima posiziotik ateratzeko duten beharra. Euren erresistentzia-kontakizunak nabarmentzeko beharra dute, elkartasun keinu txikietan arreta jartzekoa, pertsonak direla sentitzen jarraitzeko. *Y nadie quería saber (Eta inork ez zuen jakin nahi)* lanak, erresistentzia estrategia indibidual eta kolektibo horiek jaso eta nabarmentzen ditu, baita gatibualdiko mugen barruan piztu ziren elkartasun ekintzak ere, indarkeriaren mehatxuari aurre egiten ziotenak.

Informazio gehiago: http://memoriaabierta.org.ar/wp/y-nadie-queria-saber/

Kolonbia: Sin memoria me-moría, se morían

Corporación para la Vida Mujeres que Crean, 2012

4 bizitza-istorio, ikerketa txostena. Emakumeak eta indarkeria Medellinen 1988 eta 2008 tartean gatazka soziopolitiko armatuaren testuinguruan bizitakoa. Emakumeengan gatazkak sortutako banakako zein ondorio kolektiboak agerian jarri nahi ditu, emakumeen ekintza politikoa indartzeko, euren eskubideen exijitzeko daramaten ekintzak sustatzeko eta euren gorputz eta bizitzetan izan duten eraginen ordaintza integrala eskatzeko.

Informazio gehiago: https://es.slideshare.net/mujeresquecreancmqc/investigacin-35008824

Basauri: Emakumeen Aztarnen Mapak

Basauriko Udala, 2011

Basauriko Udalak bultzatutako Zaida Fernández Pérezen lan honek, historian zehar jasandako desberdintasunen eta diskriminazioen aurka borrokatu eta emakumeentzako eskubideak eta zerbitzuak lortzeko bidea erraztu diguten emakume eta feministen aurreko belaunaldiei omenaldia egin nahi die. Era bereana aztarna hauek ere ahalbidetzen dute emakumeek hauen memoriak uzten digun ondarea jaso ahal izatea.

Emakumeen aztarnak jasotzen dituzten mapa hauek forma desberdinak hartu dituzte honako herrietan: Eibar, Ermua, Basauri eta Errenteria.

Informazio gehiago: https://bit.ly/3EgVc0k

Guatemala: Tejidos que lleva el Alma

Actoras de Cambio, 2011



Gatazka armatuaren garaian bortxaketa sexuala biziraun duten emakume maien memoria jasotzen duen ikerketa da. Gorputzetik pasatzen diren min eta osatze prozesuez hitz egiten du, banakako istorioetatik hasiz agerian utzitako botere femeninoaren eraikuntza kolektiboetara integratuz; giltzapean gordetako memoria emozionalak erreparazio-rako lehen urrats gisa proposatzen ditu.

Guatemalan egindako memoria historikoaren hirugarren txostena izan zitekeen. Hau baino lehen ez zen inoiz gure herrian gerra garaian emakumeen kontra egindako bortxaketa sexualaz idatzi sakontasun maila honetan.

Equipo de Estudios Comunitarios y Acción Psicosocial (ECAP)

Unión Nacional de Mujeres Guatemaltecas (UNAMG)

Informazio gehiago: https://bit.ly/33UkHYT



TOKIAK

Uruguai: “La resistencia”, Diktadura militarreko preso politikoen omenezko horma-irudia

Colectivo Licuado, 2019

Diktaduran preso politikoak izan ziren emakumeen kartzelako hormetako bat margotuta, Colectivo Licuadok burututako proiektu artistikoa. Bertan giltzapetu zituzten emakumeen omenez horma-irudia margotzeko lankidetza-prozesu bat egin zen eta bertan preso egondako emakumeak, Dinali espazioko gizarteratze soziolaboraleko pertsonak eta auzotarrak, parte hartu zuten, besteak beste.

Informazio gehiago: https://bit.ly/3po9JTW

Madrid: Indarkeria matxistaren biktima diren eta biziraun duten emakumeen aitortzarako murala.

Madrilgo Udala, 2019

Mural honen diseinua eta margotze lana, Raquel Riba Rossy artistari enkargatu zitzaion eta beraien bizitzako momenturen batean indarkeria matxistari biziraun dioten emakumeen parte-hartzearekin aurrera eraman zuten. Sorkuntza prozesurako saioak 2018ko urtarrila eta martxoa bitartean gauzatu ziren.

Elkarrekin gauzatutako bozetutik abiatuz, Marta Lapena muralistaren laguntzarekin 2019ko ekainean Sierpes kaleko izkina bateko horman islatu zen, Mural honek indarkeria matxisten esperientziak ezagutarazteaz gain, biziraun duten emakume guztien indarra eta boteretzea bistaratu nahi ditu. Aldi berean norbanako borroka zein erreparazioarako ezinbestekoa den taldeko babesa adierazten ditu. Agerpen publiko honek erreparazio moral zein sinbolikoari mesede egin nahi dio, bai eta herritarrak indarkeria matxisten irismenaz eta larritasunaz sentsibilizatu eta kontzientziatu ere.

Informazio gehiago: https://bit.ly/32nPoVz

Txile: ‘Camarín de mujeres’ (Emakumeen gelatxoa)

Estadio Nacional Memoria Nacional Ex Prisioneros Politicos korporazioa, 2019

‘Camarín de mujeres’ edo emakumeen gelatxoa Txileko estadio nazionaleko ganbera bat da, non 1.200 emakume baino gehiago atxilotu zituzten 1973ko irailean estatu-kolpea eman osteko lehen egunetan.

Leku horretan plaka bat jarri zuten atxilotuen izenekin eta preso haurdunen oroimenez argazki erakusketa iraunkor bat eta lan artistiko bat instalatu zituzten (Gracia Barriosen ‘Ellas llevaban vida’); hain zuzen ere, preso politiko ohien ahanztura gainditzeko eta izan duten erreparazio txikia konpentsatzeko, baita egia eta justizia osatzen laguntzeko ere. Gainera, erakusketan herrialdeko atxilotze zentro desberdinetako preso ohien testigantzak eta poemak jaso zituzten, eta memoria-gune honetan modu iraunkorrean geratuko dira.

Informazio gehiago: https://estadionacionalmemorianacional.cl/camarin-de-mujeres/

Sevilla: Ana Orantes kalea

Sevillako Udala, 2019

Berdintasunaren aldeko Gizonen Sareak sustatutako sinadura bilketa baten ondoren, Sevillako Udalak Ana Orantes izena jarri zion etorbide bati. Emakume hau indarkeria matxistaren aurkako borrokaren ikur bihurtu zen 1997an, bere kasua telebista saio batean salatzeko izan zuen balentriagatik eta egun gutxira bikotekide ohiak hil zuelako. Orduan hasi zen aldaketa politikoa ematen emakumeenganako indarkeriaren erantzunari zegokionez eta gaia arazo politiko, publiko eta kolektibo gisa hartzen hasi zen.

Lehenago ere, Ana Orantes bizi zen Cullar Vega udalerrian eta La Zubian kale bana zegoen bere omenez, baina Sevillakoa da bere izena daraman ikusgarritasun handiko lehen kalea. Ondoren, Malagan ere beste kale bat izendatu zuten.

Informazio gehiago: https://bit.ly/3pmJGwk

Azkoien: Eskultura "Mujeres víctimas y resistentes, en Peralta/Azkoien"

Oroimenaren aldeko Emakumeak, 2016

1936-2016 Emakume biktima eta erresistenten oroimenerako Azkoianen (Nafarroa) egindako eskultura kolektiboa da. Toki desberdinetatik ekarritako ehundaka harrik osatzen duteeskultura, harri hauetan pertsona askoren bizipen eta sentimenduak jasotzen direlarik.

Informazio gehiago: https://acortar.link/VOM6Cs

Bilbo: Emakumeen Azaroaren 25eko Plaza

Bilboko Udala, 2012

2012an izendatu zen plaza, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna gogoratzeko, azaroaren 25a, hain zuzen. Egun hau 1981eko uztailean Bogotan (Kolonbia) egin zen Latinoamerikako eta Karibeko lehen Topaketa Feministan ezarri zen. Datak Mirabal ahizpen erailketa gogorarazten du. Patria, Minerva eta María Teresa aktibista politikoak 1960ko azaroaren 25ean hil zituzten Dominikar Errepublikan, Rafael Trujillo diktadorearen polizia sekretuaren eskuetan.

Ekimen honen helburua da indarkeria matxistaren biktimak ez ahaztea, inposatzea edo legitimatzea, eta memoria kolektiborako deia egitea. Hala, espazio publikoan indarkeria espezifiko mota hori sinbolizatzea eskatu da, herritarren partetik eta, bereziki, Bilboko mugimendu feministaren partetik; plaza honen kasuan, Bizkaiko Emakumeen Asanbladak bultzatutako kanpaina baten eskutik. Plaza honek biktimen aitorpena bilatzen du, familiek dolurako espazio bat izatea, eta, berdintasunaren aldeko borroka feministaren adierazpen sinboliko bat izatea, espazio publikoan presentzia handiagoa lortuz. Memoria kolektiboa bilatzen du, indarkeria matxisten adierazpen guztiak gogoratu eta arbuiatu ahal izateko.

Informazio gehiago: http://www.bilbaopedia.info/mujeres-25-noviembre-las-plaza

Dominikar Errepublika: Hermanas Mirabal museo-etxea

Hermanas Mirabal fundazioa, 1994

Museo honek Patria, Minerva eta María Teresa Mirabal ahizpen bizitza ekartzen du gogora, eta Rafael Trujillo jeneralaren erregimen militarraren pean (1930-1961) Dominikar Errpublikan ezarritako errepresioaren eta izuaren aurka egin zuten borroka omentzen du. Mirabal ahizpak Dominikar Errepublikako historiaren martiritzat hartzen dira, demokrazia, berdintasuna eta askatasuna defendatzeko erakutsi zuten ausardiagatik eta egin zuten borrokagatik. Denboraren poderioz, mundu osoko emakumeei eragiten dien genero-indarkeriaren aurkako borrokaren ikur bihurtu dira. Haien omenez proposatu zen azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egun gisa.

Hermanas Mirabal etxe-museoa Salcedo udalerrian dago. Bertan igaro zituzten Minerva, Patria eta María Teresa ahizpek erail aurreko azken hilabeteak. Argazki, plaka, apaingarri eta osagarri pertsonalen bidez, dominikar diktaduraren aurkako erresistentzian izan zuten rolagatik heroi nazionaltzat hartzen diren hiru ahizpen bizitza kontatzen da. 2007an Salcedo probintziaren izena, Dominikar Errepublikako 32 probintzietako bat, Hermanas Mirabal izenagatik aldatu zen.

Para más informacíon: http://casamuseohermanasmirabal.com/

Hego Korea: House of Sharing - Esklabotza sexualaren museoa Japoniako armadaren eskutik

Erakunde budistak eta gizarte zibilekoak. 2000. urtetik aurrera, Hego Koreako gobernuaren laguntza du, 1992

House of Sharing *(Partekatzearen etxea) Japoniako armadak Bigarren Mundu Gerran esklabotza sexualaren biktima izan ziren Hego Koreako emakumeentzat sortu zuen atseden-etxea da. 1998tik dago martxan* Museum of Sexual Slavery by Japanese Military *(Japoniar Armadaren Sexu Esklabotzaren Museoa) delakoa. Bertan, oroitza-*

penezko parke bat dago, non etxe horretan bizi ziren emakumeen brontzezko hilobi eta bustoak dauden.

Japoniak Asia eta Ozeano Bareko uharteak okupatu zituen garai kolonial eta belikoan (1930-1945) milaka emakume, munduan *ianfu* edo *confort women* bezala ezagutzen zirenak (euskaraz "gozarazteko emakumeak"), Japoniako armadako soldaduen jazarpen sexuala jasan zuten. Militarrek sexu-abusuak egin zizkieten sistematikoki Japonian, Korean, Taiwanen, Txinan, Filipinetan, Indonesian eta Ekialdeko Timorren instalatutako estazioetan. Kalkuluen arabera, "gozarazteko emakumeen" kopurua 50.000 eta 200.000 artekoa zen. Nesken bahiketak, bortxaketa masiboak, nahitaezko abortuak, umiliazioak eta emakume horiei eragindako sexu-indarkeria mota guztiek mutilazioak, heriotzak eta suizidioak eragin zituzten.

XX. mendeko 90eko hamarkadara arte, "gozarazteko emakumeen" gaia tabua zen Hego Koreako jendartean. Gerra Hotzaren amaieraren nazioarteko testuinguru berrian gertatu zen haustura, non mugimendu feministek oso paper aktiboa bete zuten. Kim Hak-soon izan zen isiltasuna hautsi zuen lehen emakumea. 1991ko abuztuaren 14an Japoniako armadako sexu-esklabo gisa jasandako sufrimenduak kontatu zituen. Emakume hauek Koreako irudi publiko bihurtu dira. 1992ko ekainean *House of Sharing* sortu zen, 1930 eta 1945 urteen bitartean Japoniako armadaren sexu-esklabotza jasan zuten emakumeak zaintzeko. Hego Koreako gobernuaren laguntza du 2000. urtetik, erakundea adineko pertsonentzako gizarte-ongizateko establezimendu gisa onartu zenetik.

Para más informacíon: http://www.nanum.org/eng/main/index.php

Azaroak 25: Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Latinoamerikako mugimendu feministа, 1981

Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna, azaroaren 25a, 1981eko uztailean Bogotan (Kolonbia) egin zen Latinoamerikako eta Karibeko lehen Topaketa Feministan izendatu zen. Topaketa horretan emakumeek etxeko genero indarkeria eta estatu mailako bortxaketa eta sexu jazarpena salatu zituzten, preso politikoek jasandako tortura eta abusuak barne.

Datak Mirabal ahizpen erailketa gogorarazten du. Patria, Minerva eta María Teresa aktibista politikoak 1960ko azaroaren 25ean hil zituzten Dominikar Errepublikan, Rafael Trujillo diktadorearen polizia sekretuaren eskuetan. 1999tik Nazio Batuek ere aitortzen dute eguna.

Informazio gehiago: https://bit.ly/32wT5rS

Alemania: “Ravensbrück-eko Emakumeak” memoriala

Ravensbrück-eko Emakumeen Kontzentrazio esparruaren batzordea, 1975

1938 eta 1945 bitartean, 132.000 emakume baino gehiago Ravensbrück-eko emakumeentzako kontzentrazio-esparruan barneratuak izan ziren, Berlinetik 80 bat kilometrotara. Emakume horietatik 90.000ak ez zuten biziraun. Gaur egun, Ravensbrükeko kontzentrazio-esparrua museo eta memorial bat da.

Gutxi gora behera 900 emakume Holandatik Ravensbrükera erbesteratuak izan ziren, gehienak indar okupatzaile alemaniarrei erresistentzia ekintzak egiteagatik. 1994ko irailean Holandatik etorritako emakume talderik handiena Vughteko kontzentrazio-esparrutik zetozen; Ravensbrüken bizitza baldintzak garai hartan erabat latzak ziren. Espazio falta zela eta, emakumeak gaua kalean bota behar zuten eta asko hil ziren horregatik. Suediar Gurutze Gorriaren ekimenez, 1945eko apirilean, biziraun zuten emakume holandarrak aske utzi zituzten.

Informazio gehiago: https://bit.ly/32u6tgq

EKINTZA SINBOLIKOAK

Nazioartekoa: “Mujeres Resistentes” erakusketa

Memoria Historikoa Berreskuratzeko Elkartea, 2021

Espainiako Gerra Zibilean eta Bigarren Mundu Gerran Espainian, Italian, Frantzian eta Alemanian emakumeek erresistentzia-agente gisa izan zuten papera ezagutarazteko erakusketa ibiltaria.

Borrokalari antifaxisten ekarpena du ardatz: milizianoak, politikariak, atzeraguardiako langileak, boluntarioak, gerrillariak, manifestariak, errepresaliatuak, deportatuak... Erakusketa honen jomuga dira nola euren ekintza kontzienteenak, hala askatasunaren eta antifaxismoaren aldeko borrokan laguntzeko balio izan zuten keinu txikiak. Helburua da euren oroimenari justizia egitea eta ikusleari haien ekintzek izan zuten garrantziaren ikuspegi orokorra ematea. Horretarako, Espainiako Gerra Zibilean eta Bigarren Mundu Gerran emakumeek faxismoaren aurkako borrokan izandako erresistentzian oinarritutako ibilbide dokumental eta fotografikoa baliatzen da, Espainiako erresistentzia Frantziakoarekin, Italiakoarekin eta Alemaniakoarekin lotzen duena.

Informazio gehiago: https://mujeresresistentes.eu/

Mexiko: Feminizidioaren biktimen omenezko ekintza

Colectiva SJF, 2020

2020ko martxoaren 8an SJF kolektiboak ekintza bat bultzatu zuen Mexikoko feminizidioaren biktimen omenez. Mexiko Hiriko Zokaloan 2016tik 2020ko martxoaren 8ra bitarte feminizidioen biktima izan diren emakumeen izenak margotu zituzten.

Proposamen horrek eskatzen du 3.200 emakume baino gehiagoren izenak ez ahaztea eta gertatzen ari denaren gogorapena izatea. SJF kolektiboak esaten zuen bezala: “Falta zaizkigun guztiak izendatzen ditugu, gaur gurekin kalera atera ezin direnak, indarkeria patriarkalak kendu zizkigunak. Guztiek dute izena, aurpegia, historia; eta gaur haien izenak justiziaren aldarrikapena dira”.

Informazio gehiago: https://bit.ly/3yZSz1V

Argentina: Ser mujeres en la ESMA, testimonios para volver a mirar

Museo Sitio de La Memoria ESMA, 2019

Ser Mujeres en la ESMA, testimonios para volver a mirar biziraun duten emakumeen testigantza judizialetan oinarritutako erakusketa bat da, ESMA (Detentzio, tortura eta hilketarako isilpeko zentroa) deritzon gunean gauzatutako indarkeria matxista eta askotariko sexu erasoei buruzkoa.

Egungu emakumeen mugimenduaren aldarrikapenekin elkarrizketan, erakusketa honek ESMAren isilpeko zentro honen funtzionamendua genero ikuspegi batetik aztertzen da, orain arte Museoan aintzat hartu ez den ikuspegi batetik alegia.

Informazio gehiago: https://bit.ly/3z0WjQU

Euskal Herria: Emeek Emana

Intxorta 1937 Kultur Elkartea, 2018

"Memoria historikoa emakumeen ikuspegitik, Emeek Emana" argazki erakusketa. 63 erretratu biltzen ditu, zeintzuetan islatzen den 1936tik aurrera emakumeek testuinguru historikoan izandako rol aktiboa. Gudu-zelaiaren, erbestearen, torturaren, kartzelaren eta errepresioaren inguruko narrazioak eta bizipenak. Intxorta 1937 Kultur Elkarteak eta Mauro Saravia argazkilari txiletarrak, erakusketa honekin, memoria historikoa, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak berreskuratzeko ariketa egin dute, kontakizun, bizipen eta esperientziei buruzko ikerketa baten bidez.

Proiektuak ikusgarritasun handia izan du azken urteotan, telebista publikoko albisteetan agertu zenetik, biolentzia matxisten aurrean memoria eraikitzeko Mugarik Gaberen jardunaldietan parte hartzeraino.

Informazio gehiago: https://bit.ly/3ErhrAK

Guatemala: Memoria jaialdiak

Actoras de Cambio, 2008, 2011, 2015, 2018

Jaialdi hauen helburua da biziraun duten emakumeek beraien buruekin eta beste emakume batzuekin topo eginez, elkar osatzeko eta jendartea eraldatzeko aukerak ospatzea.

Artearen, konexio energetikoaren eta hitzaren bitartez bortxaketen kausa eta ondorioen memoriari ekarpena egitea, baita beraien buruak osatzeko eta bidegabekeria hau errepikatu ez dadin komunitateak eraldatzeko izandako indarra aitortuz.

Informazio gehiago: https://www.actorasdecambio.org.gt/festivales/

Valencia: "Jo sóc. Memòria de les rapades" erakusketa

Art al Quadrat, 2018

Proiektu honek "las rapadas" deritzen emakumeei omenaldia egiten die, beraien jarrera liberal edota ideia politikoengatik frankismoak errepresaliatutako emakumeak. Ilea moztea jasaten zituzten irainetako bat baino ez zen. Bizilagunak baliatzen zituzten hauen tratu txar eta umiliaziorako.

Erakusketa honen helburua ez da iraganean pasatako mina berriz erreproduzitzea, gertaera hori orainalditik osatzea baizik, "las rapadas" deritzen emakumeen balio goraipatuko duen energia kolektibo bat sortuz, hau baliagarria izan dadin gaur egun emakumeok mundu guztian zehar jasaten dugun indarkeriaren kontrako borrokan.

«Yo soy. Memoria de las rapadas» erakusketan, Art al Quadrat osatzen duten Mónica eta Gema Del Rey Jordà (Valencia,1982) artista bikiek, oso esanguratsua izan zen ekintza sinboliko bat gauzatu zuten 2017ko azaroaren 5ean: Bi aizpek elkarri ilea moztu eta emakumeek frankismoan egiten zuten "paseilloa" egin zuten hauen oroimenez.

Informazio gehiago: http://www.muvim.es/es/content/yo-soy-memoria-rapadas

Euskal Herria: “Nik sinisten dizut. Emakumeen Egia Aitortu” ekitaldi politikoa

Foro Sozialeko Genero Lantaldea, 2017

nik sinisten dizut
EMAKUMEEN EGIA AITORTU
RECONOCER LA VERDAD DE LAS MUJERES

EMAKUMEEN EGIA AITORTU
RECONOCER LA VERDAD DE LAS MUJERES

EKITALDI POLITIKOA
ACTO POLÍTICO

2017ko Urriaren 8an, Solokoetxen (Bilbo), “Emakumeen egia aitortu. Nik sinesten dizut” izeneko ekintza publikoa ospatu zen, non esparru desberdinetako emakumeek beraiek jasandako erasoen testigantza eman eta elkarren esperientziak entzun zituzten.

Horrela, modu sinboliko batean bizipen hauen errekonozimendu kolektibo bat gauzatu zen, aitortza soziala zor zaien erreparazio eta justizia prozesuetan ezinbesteko urratsa delako.

Informazio gehiago: https://justiziafeminista.eus/yo-te-creo/

Nazioartekoa Women in Black Action

Mujeres imperfectas, 2013



Bikotekideen eskutik emakumeen erailketak salatzeko eta ahalik eta jende gehien kontzientziatzeko, Women in Black Actionek ekintza sinboliko bat egiten du kaleetan.

Biltzen diren emakumeak ezberdinak, beltzez jantzita, lurrean etzaten dira, elkarren ondoan, hilda daudela irudikatuz. Beste arduradun batek emakume horien igerada klarionarekin marrazten du lurrean, eta, ondoren, banan-banan altxatzen dira, soilik igeradak lurrean geratzen diren arte. Ekimen honen bidez, hilketa matxistak modu numeriko eta bisualagoan erakustea proposatzen da.

Informazio gehiago: https://www.facebook.com/womeninblackaccion/

Nazioartekoa : Zapata Gorriak

Elina Chauvet, 2009

"Zapata gorriak arte eta oroimen kolektiboa elkartzea da". Elina Chauvet

Zapata Gorriak Arte Publikoaren* instalazio bat da eta Elina Chauvet* ikus-artista mexikarraren artelana. Zapatak desagertze baten testigantza irudikatzen du jantzi baten bitartez.

Zapata Gorriak emakumeen giza eskubideen urraketaren salaketa publikoa da eta emakume, gazte eta neskatoen erailketen aurrean jendarteari elkartasuna eta justizia exijitzeko deia egiten diona. Lan honek bere hastapenak 2099ko abuztuak 20an, Ciudad Juárez Chihuahua, Mexikon du, erailak edo desagertuak izan ziren 33 emakumeen martxa bezala jurezeko emakumeek dohaintzan emandako "Zapata Gorri"en bitartez ikustaraziz. Lan hau Mexikotik kanpo beste herri batzuetan errepikatu da hala nola, Argentina, Italia, Espainia, Norvegia, Txilen, Brasil, Estatu Batuak, Ekuador, Erresuma Batua, Alemanian.

Informazio gehiago: https://zapatosrojosartepublico.wordpress.com/

Nazioartekoa: Beltzez jantzitako Emakumeen bijiliak

Beltzez jantzitako emakumeak, 1988. urtetik

Ibilbide luzea egin du gerraren aurkako emakumeen nazioarteko mugimendu bakezale eta feminista honek, mundu osoko gatazka armatuekin lotutako bidegabekeriak salatzen. Mugimenduaren estrategietako bat bijiliak izan dira, pertsona baten edo gehiagoren indarkeriarik gabeko agerraldiak, normalean beltzez jantzita eta isilik, mezuak dituzten pankartekin (batzuetan kandelak, loreak); helburu dute gatazka armatuak eta horien ondorioak gaitzestea

Bijilia horiek leku estrategiko eta jendetsuetan egiten dira, garrantzi sinbolikoren bat izan dezaketenak. Emakume zein gizonei zuzendutako ekintzak dira, eta aldian behin egiten dira. Bijilia horiek, beste ekintza batzuekin batera, nazioarteko zein tokiko gatazka ugari salatzeko balio izan dute, besteak beste, Palestinan, Iraken, Balkanetan eta Afganistanen gertatutakoak.

Informazio gehiago: https://womeninblack.org/

Balorazio batzuk

Balorazio batzuk

Mugarik Gabe

Aurreko orrialdeetan, emakumeen memoria berreskuratzearen aldeko apustua egiten duten memoriaren lekuen adibide batzuk jaso ditugu, batez ere askotariko indarkeria matxistaren biktima direnena eta biziraun dutenena.

Ekimen aniztasun horrek, bilketa sakona izan gabe, laguntzen digu haien garapenari eta horrelako esperientziak bultzatzen jarraitzeko beharrari buruzko balorazioak partekatzen, aurretiazko ikaskuntzei berriro ekinez.

Ia 50 ekimen jaso ditugu, testuinguru oso desberdinetako emakumeen ahotsekin, bizipenekin eta esperientziekin. Memoria kolektiboa gordetzen duten lekuen erakusgarri dira. Peru, Txile, Guatemala, El Salvador, Mexiko, Argentina, Espainiako Estatua eta Euskal Herria dira indarkeria matxistak emakumeen eskubideen urraketa sistematiko gisa ikusaraztearen eta salatzearen aldeko esperientziak dituzten lurraldeetako batzuk. Esperientzia zabaltasun horrek memoria eraikitzen laguntzen digu, egiturazko kausak eta erreparazio proposamenen beharra agerian uzten dituen azterketa feminista batetik abiatuta.

Memoriaren lekuak webguneetan, ikus-entzunezkoetan, ikerketetan, memoriaren espazioetan eta ekitaldi sinbolikoetan sailkatu ditugu, jakinda kontzeptuek interpretazio desberdinak dituztela eta memoriaren leku batzuk, duten zabaltasunagatik eta konplexutasunagatik, atal horietako batzuen parte izan daitezkeela. Edonola ere, uste dugu sailkapen horrek irakurketa eta bilaketa erraztu ditzakeela, bai argitalpenean, bai webgunean[1], eta etorkizunean hobetzen jarraituko dugu.

Argitalpen honetan jasotako memoriaren lekuak leku materialak (ikerketak, museoak, plazak...) eta ez-materialak (datak, erritualak, jarduera artistikoak...) izan daitezke. Horiek guztiak ahanzturaren aurkako funtsezko tresnak dira, iragana orainarekin eta etorkizunarekin lotzen dutenak.

Lehenengo ekimenek emakumeen artxiboek eta dokumentazio-zentroek jokatu duten rol protagonistarekin zerikusia duten hainbat **webgune** eta ikerketarako eta hedapenerako espazioak dituzte ardatz, memoriari eusteko funtsezkoak direnak. Ildo

1 Memoria Eraikiz espazio birtuala (eguneratzen jarraitzen dugu): https://www.mugarikgabe.org/violenciasmachistas/memoriaeraikiz/espacio-virtual/

horretan, komunikabideen rola eta proiektu zehatzekin egindako ekarpena ere nabarmendu nahi ditugu, indarkeria matxistei buruzko informazioa biltzen (Berria) eta emakume biktimen bizitzako istorioak zabaltzen (La Marea) egindako lanagatik.

Hurrengo atalean **ikus-entzunezko** batzuk aipatuko ditugu, dokumentalak zein fikziozkoak, historiako une batzuk argitzen laguntzen digutenak, non emakumeen ekarpenak eta ikuspegiak ikusezinak izan diren. Horietako batzuek indarkeria matxistetatik bizirik atera diren emakumeei ahotsa ematearen aldeko apustua egin dute, hala nola *Voces Plurales de Guatemala* dokumentalak. Honek, besteak beste, indarkeria arazo politiko gisa identifikatzen du eta emakumeen papera azpimarratzen du proposamen alternatiboen eraikuntzan. Sailkapen honetan irratigintzako pieza batzuk ere sartu ditugu, kasurako, Hala Bedi irrati librearen ekimena, *Las mujeres de Gasteiz en la matanza del 3 de Marzo de 1976* (Gasteizko emakumeak 1976ko martxoaren 3ko sarraskian) saioaren hedapenarekin.

Ikerketen barruan, nabarmendu nahi dugu ikuspegi feminista duten metodologiak txertatzearen aldeko apustua, bizitza-istorioak, esaterako. Horren adibide dira Kolombiako *Sin Memoria me moría, se morían* (Memoriarik gabe hiltzen nintzen, hiltzen ziren) edo narrazio-ekoizpenak, ikerketa-prozesu osoa zaintzen dutenak eta parte-hartzea sustatzen dutenak, emakumeen testigantzak funtsezkotzat hartzen dituztelako.

Memoria **espazioen** artean batzuk fisikoak dira, hala nola museoak, plazak, kaleak, muralak edo eskulturak, eta beste batzuk sinbolikoak, adibidez, azaroaren 25eko oroitza-data. Horiek guztiak ezinbestekoak dira gogoratzeko eta elkartzeko espazio gisa duten potentzialagatik. Biktimak eta biziraun dutenak aitortzeko eta ikusarazteko leku publikoak dira, egia zabaltzen dutenak eta, horrela, erreparazio sozial eta kolektiboari ekarpena egiten diotenak.

Ekintza sinbolikoak ugariagoak izan dira azken urteotan, gero eta adierazpen artistiko eta performatibo gehiago egin direlako indarkeria matxistak salatzeko eta, bereziki, biktimen oroitza eta erreparazioa eskatzeko. Hala, erakusketei eta aintzatespen-ekitaldiei ekimen artistikoak edo ekintzaile feministen ekimenak batu zaizkie, beste askoren artean, herritarrengana iristeko beste bide eta hizkuntza batzuk bilatzea helburu dutenak. Atal honetan, sendatze-prozesu kolektiboetatik erreparazioa lortzen laguntzen duten ekimenak ere nabarmendu nahi ditugu, Guatemalako Actoras de Cambio taldearen *Festivales de la memoria* (Memoria jaialdiak) bezala.

Gainbegirada txiki honetan, indarkeria matxisten aurkako memoriaren lekuen zabaltasuna eta aniztasuna ikusiko dugu, tresnen jarraitutasuna eta formatu berrien etorrerarekin batera (webgune interaktiboak, fanzineak, performanceak edo podcastak). Hauek, xede bera mantentzen dute, alegia, biktimen eta biziraun duten emakumeen memoria sozialerako narratiba berriak eraikitzea.

Memoriaren leku horietako bakoitzaren **helburuei** erreparatuz, argitalpen honetan jasotako ekimen gehienak emakumeen memoria lantzeko helburu espezifikoarekin sortu dira. Horietako batzuk, azken urteotan sentsibilitate eta mobilizazio feminista handiagotzearen ondorio dira eta analisi berriak sortu dituzte genero-azterketarik ez zegoen memoria-guneetan. Horren adibide da ESMAren (Argentina) zentro klandestinoan sortutako *Ser mujeres en la ESMA* (ESMAn emakume izatea) erakusketa.

Ekimen guztiek dute komunean egiaren zabalpena, justizia eta indarkeriaren biktima diren emakumeen erreparazioa, eta estrategia osagarrietatik abiatuta memoriaren irudikatzerako narratiba alternatiboak eta bidezkoak eraikitzen laguntzen dute.

Memoriaren lekuak bultzatzean kontuan hartu behar da **nork** bultzatzen dituen. Argitalpen honetan instituzioetako ekimenak eta jendarteko taldeek bultzatutakoak jaso ditugu, mugimendu feministaren protagonismo nabarmenarekin. Nolanahi ere, nabarmendu nahi dugu oso garrantzitsua dela inplikatutako eragileak anitzak izatea, osatze-prozesuak hainbat eragiletatik sustatzea eta instituzioek erreparazio-prozesuetan dituzten erantzukizunak beren gain hartzea. Ildo horretan, interesgarria da leku horiek zaintzeko eta mantentzeko erantzukizunak definitzea (azpiegiturak garbitzea, webguneak eguneratzea...), baldintza egoki eta duinetan mantenduko direla ziurtatzeko.

Zentzu honetan, funtsezkoa da **prozesu parte hartzaileak** sustatzea memoriaren leku horiek diseinatu eta martxan jartzeko, eta horrela memoriaren eraikuntza kolektibo honetan egokiak direla ziurtatzeko.

Partaidetza-prozesu hauetan biktimek eta biziraun dutenek paper garrantzitsu bat izango dute, protagonistak izango dira, eta berriz ez biktimizatzea zainduko da. Ahalduntze rol batetik hartuko dute parte, subjektu politiko gisa, eta biktimen posiziotik mugituko dira haien erresistentzia-kontakizunetan fokua jartzeko. Gainera, jasotako ekimenetan ikusi dugunez, haien testigantzak minaren eta erresistentziaren erakusgarri dira. Funtsezkoak dira, entzuten dituztenentzat eta haientzat beraientzat, kontatzen dituztenentzat. Lekukotasuna ematea sendagarria izan daiteke beren kontakizunari sinesgarritasuna eta aintzatespena ematen dion testuinguru batean; aurre egiteko dituen estrategiak aintzat hartzen ditu eta bere errealitatearen protagonista eta subjektu aktibotzat hartzen ditu. Horren adibide dira Peruko *Proyecto Quipu* proiekzioaren eta Mugarik Gaberen *Documentación de asociaciones de sobrevivientes* dokumentazioaren (Bizirik ateratakoen elkarteen dokumentazioa) esperientziak, azken hau enfasi kolektibo batetik abiatuta.

Ikuspegi **metodologiko** batetik, aipatutako ikerketetako elementu espezifikoez gain, proposamen batzuen ikuspegi pedagogikoa nabarmendu nahi dugu. Adibidez, erakusketa batzuetako bisita gidatuak edo material didaktiko osagarriak, parte-hartzea eta eztabaida pizteko eta pentsamendu kritikoa indartzeko. Interesgarriak dira, halaber,

sareetan eskuragarri dauden formatu libreen eta/edo ahozko formatuen aldeko apustua egin duten esperientziak, irisgarritasun handiagoa lortzeko estrategia gisa.

Ildo beretik, emakumeen ezabapena eta ikusezintasuna giza eskubideen urraketa prozesu indibidual eta kolektiboekin emozionalki konektatu eta aurpegia, gorputza, historia... jartzen dieten proposamenak indartu nahi ditugu. Emozioekin konektatzea lagungarria izango da informazioa jasotzen duenarengan inpaktua lortzeko eta denboran eta memoria kolektiboan irauteko.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu argitalpen hau ahalbidetu duten esperientziak martxan jarri dituzten pertsona eta kolektibo guztiei. Memoriaren lekuak taldean eraikitzearen beharra indartzen eta ikasten jarraitzen dugu, bertatik ahanzturaren aurka borrokatzen jarraitu dadin, emakumeek aurre egindako indarkeria matxistak aitortzen eta jasotzen, eta zapalkuntzarik gabeko etorkizun aske batera hurbiltzeko.

Mexikoko SJF kolektiboak ekintza sinbolikoetan jasotako ekimenean planteatzen zuen bezala: *"Falta zaizkigun guztiak izendatzen ditugu, gaur gurekin kalera atera ezin direnak, indarkeria patriarkalak kendu zizkigunak. Guztiek dute izena, aurpegia, historia, eta gaur haien izenak justiziaren aldarrikapena dira."*

Memoria eraikitzea, zigorgabetasunaren aurka borrokatzea ez ezik, etorkizuna eraikitzea ere bada, ez errepikatzearen aldeko apustua eginez. Etorkizunera mezu hau zabaltzen dugu: "Inoiz ez gehiago".

Memoria Eraikiz indarkeria matxisten aurkako estrategia gisa, biktima eta biziraun duten emakumeen ahotsa eta testigantzak jasoko dituen memoria kolektiboa eraikitzearen aldeko apustua da. Ekimena, emakume horiei sinesgarritasuna emateko, euren erresistentzia estrategiak ikusarazteko, kontakizunak nabarmentzeko eta emakume hauek beren bizitzaren protagonista diren diskurtsoetara igarotzeko eta gizarte-eraldaketaren beharretik sortzen da.